

2024-2025

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARAUTEGIA

Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik Graduiko ikasketetan kredituak aitortzeko arautegia

[GRADUKO IKASKETAK]

ALDEKETEN HISTORIA

Dokumentuaren bertsioa	Data	Egindako aldaketen zehazpena
8	2024.07.01	- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko - Kirol ekintzengatik aitortu daitezkeen kreditu gehiengoaren aipua kendu - Eranskinak eguneratu
7	2022.09.01	- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko -Aitortuak izan daitezkeen ekintzen zerrenda handitu da
6	2021.09.01	- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko -Aitortuak izan daitezkeen ekintzen zerrenda handitu da
5	2019.09.01	- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko -Kredituen aitortpena egiteko eskaera egiteko data aldatu da - Araudiaren testu osoa berrikusi da hizkuntza inklusiboaren erabilera sustatzeko
4	2018.05.30	-ECTS-ak aitortzeko eskaeraren behin behineko eta behin betiko prozedura azaldu
3	2017.09.01	-Dokumentuan zehar azaltzen diren zenbait data eguneratu (ikasturte akademikoa, dokumentuaren erredakzio data eta ze ikasturtetik aurrera burututako ekintza eta jarduerak aitortuko diren).
2	2016.09.01	-Eguneratu dokumentuaren erredakzioaren data. -Ondoko testua: 'b) Atzerriko ikasleek Mondragon Goi Eskola Politeknikoan egiten duten egonaldian haien integrazioa errazteko egiten diren ekintzetan parte hartzea. Jarduera hau hirugarren eta laugarren mailtako ikasleek egin ahalko dute' . beste honengatik ordezkatu: 'b) Hirugarren eta laugarren mailtako ikasleen parte hartzea, atzerriko ikasleek Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan egiten duten egonaldian integratzen laguntzeko garatzen diren ekintzetan' . - 'Atzerriko ikasleei MGEPen kokatzen laguntzea' ekintza zertan datzan, zenbat ECTS metatu daitekeen, ikasleen aldetik zenbat denbora eskatzen duen eta nola egiaztatu behar den zehaztu da.
1	2015.09.25	- Zehaztu ECTSak ikasturtean edo urte naturalean lortu daitezkeela, ikaslea zein jardueratan parte hartzen ari den. - Egokitu testua hizkuntza inklusiboa erabiliz. - Zehaztu kirol jardueretan parte hartu izana aitortzeko ziurtagiriak ez dituztela ikasleek entregatu behar, hau da, MUko kirol jardueren koordinatzaileak emango du parte hartzaileen zerrenda. - 'Idazkari Akademikoa'-ren ordezkari 'Zerbitzu Akademikoen Departamentua' jarri. -'Hirugarren eta laugarren maila'-ren ordezkari 'hirugarren eta laugarren ikasmaila' jarri. -'Ikasleak aurkeztutako dokumentazioa ikusita' jarri ordezkari, jarri 'jardueren arduradunek jasotako ikasleen zerrendak ikusita'. -Kendu esaldia: 'Horretarako, ikasleak I. Eranskinean zehaztutako ziurtagiriak edo eskabideak eskatu beharko ditu'. -Adierazi ECTS-en errekonozimendua "ikasleak aurretiaz eskatuta" egingo dela. -Kendu zazpigarren xedapena: 'Zazpigarrena.- 2014-2015 ikasturtean, jarduera horietan parte hartzeagatik kredituak aitortzeko eskatu ahal izango dute Gradu lehena, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak; eta 2015-2016 ikasturtean gradu ikasle guztiak'. -Zenbakitu berriro xedapenak, zazpigarrenetik aurrera. -Eguneratu dokumentazioaren erredakzioaren data. -Sartu bi jarduerak berri I. Eranskinean: 'Zientziaren Astean parte hartzea' eta 'San Pankrazio jaian parte hartzea'. -Sartu jarduerak berri bat II. Eranskinean: 'GEPeko Ate Irekien Jardunaldietan parte hartzea'.

Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik Gradu ikasketetan kredituak aitortzeko arautegia

SARRERA

2021eko 822 Errege Dekretuak, irailaren 28koa, xedatzen du, Gradu ikasleei gutxienez 6 ECTS onartu beharko zaizkiela Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik. Ekintza eta Jarduera hauek mota honetakoak izan daitezke:

- Ikasleen ordezkarietakoak
- Kirol-ekintzak
- Unibertsitateko kultur ekintzak
- Elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak

Honela:

“Artículo 10. Procedimientos de reconocimiento y transferencias de créditos académicos en los títulos universitarios oficiales.

(...)

9. En todo caso, específicamente para los títulos de Grado se deberá tener presente que:

(...)

c) Serán objeto de estos procedimientos los créditos con relación a la participación del estudiantado en actividades universitarias de cooperación, solidarias, culturales, deportivas y de representación estudiantil, que conjuntamente equivaldrán a como mínimo seis créditos. De igual forma, podrán ser objeto de estos procedimientos otras actividades académicas que con carácter docente organice la universidad. En ningún caso podrán suponer la totalidad los créditos objeto del reconocimiento establecido en esta letra c) de este artículo, más del 10 por ciento del total de créditos del plan de estudios.”

Hori dela eta, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak ekintza eta jardueren eskaintza zabal bat prestatu du Gradu ikasleei eskaintzeko. Ekintza eta jarduera hauen bitartez, kredituak onartzeaz gain MGEPEk ikasleek barneratzeko ondoko balioak sustatu nahi ditu:

- Kooperazioa
- Parte hartzea, misioarekin konpromisoa
- Giza erantzukizuna, ingurumenarekiko inplikazioa
- Berrikuntza
- Formakuntza, pertsonaren garapena
- Ekintzailetasuna

Hauetaz gain, euskararen erabilera eta berdintasuna ere sustatu nahi dira.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, bere ahalmenaz baliatuta, arau eta prozedurak ezarri behar ditu bere gestioaren arlo desberdinetako zereginak tramitatu ahal izateko. Horregatik honako arautegi hau onartu du:

XEDAPENAK

Lehena.- Goi Eskola Politekniko honetan matrikulatutako ikasleek unibertsitateko kultur eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkarietan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dituzte horien truke, LOUko 46.2.i) artikularen arabera.

I. eranskinean jardueren zerrenda eta bakoitzagatik urtean edo ikasturtean lor daitekeen gehieneko kreditu kopurua, bai eta jarduera bakoitzaren campusa ere jasota dira. Dena den, jarduera batengatik behin bakarrik aitortu ahalko dira kredituak.

Bigarrena.- Ikasle-ordezkaritzan aritzeagatik kredituak eskuratzeko ikasle ordezkariorde gisa aritu beharko du ikasleak eta –dagokionean- kudeaketa organoetan parte hartu, honela:

- Kontseilu Errektorearen bileren %75era joan beharko du eta Batzar Orokorraren bileretara. Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak organo honen bileretan parte hartu duten ikasleen zerrenda bidaliko dio MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuari, honek informazio hori ikasle partehartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Ikasle Kontseiluaren kasuan, ikasleak bileren %75era joan beharko du, eta Ikasle kontseiluko idazkariak ziurtagiri bat bidaliko dio Zerbitzu Akademikoen Departamentuari, organo horren bilera bakoitzera joandako pertsonen zerrendarekin.

Hirugarrena.- Kirol-ekintzengatik kredituak aitortzeko, interesdunek M.U.ko Kirol Koordinatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Kirol-ekintzak dokumentu honen I. eranskinean zehaztutako baliokidetasunak izango ditu kontuan.

Laugarrena.- Prestakuntzarako kultur ekintzengatik kredituak emateko, honako hauek hartuko dira aintzat:

- a) BINek antolatu eta bultzatutako ikastaro, mintegi, biltzar, ekintza eta halakoak, beti ere I. eranskinean jasotako eremuaren barruan badaude.
- b) Euskara Batzordekide izatea. Ikasleak Euskara Batzordeak antolatzen dituen bileren %75era joan beharko du eta Batzorde honek sustatzen eta bultzatzen dituen ekintzak antolatu edota hauetan parte hartu.

Bosgarrena.- Elkartasuneko eta lankidetzako jarduerengatik kredituak emateko, honako hauek hartuko dira aintzat:

- a) Biteri Ikastetxe Nagusiak kudeatu edo babestutako boluntariorde- edo lankidetzak-jardueretan parte hartzea.
- b) Hirugarren eta laugarren mailetako ikasleen parte hartzea, atzerriko ikasleek Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan egiten duten egonaldian integratzen laguntzeko garatzen diren ekintzetan.

Seigarrena.- MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuak arduradunek jasotako ikasleen zerrendak ikusita, eta aurrez ikasleak eskatu badu hautazko kredituak aitortzeko erabakia hartuko du, kreditu horiek ikaslearen espedientean sar daitezzen.

Zazpigarrena.- Arautegi honek ez du atzera eraginik. Beraz, 2013-2014 aurretiaz garatutako jarduerak eta parte hartutako ekintzek ez dute kredituak aitortzeko eskubiderik emango.

Zortzigarrena.- Aitorpen eskaerarako prozesua

ECTS-ak aitortzeko behin behineko eskaera

ECTS-ak aitortzeko behin behineko eskaera 1,5ECTSko unitatetan izango da eta Zerbitzu Akademikoetan egingo da araudi honetako ANEXO II atalean dagoen Dok 1 dokumentua aurkeztuz, gehienez notak publikatu eta hurrengo egunean¹. Eskaera honekin ikasleak ulertzea emango du hurrengo ikasturtean, 2023-24an adibidez, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartuko duela ECTSak metatzeko, ondoren dagokion ikasketa planeko ikasgai optatiboak egiteari uzteko.

Egin gabe utzi daitezkeen ikasgaiak honakoak izan daitezke:

- 2.mailako ikasgai optatiboak (seihileko 3 ECTS, Ingeniaritza Mekanikoko Graduan izan ezik)
- 3.mailako ikasgai optatiboak (seihileko 4,5 ECTS, Mekanikako Ingeniaritza eta Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduan izan ezik, seihileko 3 ECTS dira eta)
- 4.mailako ikasgai optatiboak (1.seihilekoan metatutako ECTS kopuru berdina edo gutxiago)

Eskaera honi erantzunez, ikasleak matrikula gauzatzeko momentuan, kurtsoko derrigorrezko ECTS kopurua baino gutxiagotan matrikulatu ahal izango da.

2023-24 ikasturtea amaitu baino lehen ikasleak ez badu behin betiko eskaera aurkeztu (jarraian jasotzen den moduan), eskaerari uko egiten diola ulertuko da eta eskaera berri bat aurkeztu beharko du hurrengo ikasturterako; edo, 2024-25 ikasturtean, 2023-24an egin ez zituen ikasgaiak egin.

¹ Noten publikazioaren hurrengo eguna, jai eguna bada, epea hurrengo lan egunerarte luzatuko da

ECTS-en aitorpenerako behin betiko eskaera, ECTS-ak metatu direla frogatzean

ECTS-ak aitortzeko behin betiko eskaera 1,5ECTSko² unitatetan egingo da eta ikasleak behin behineko eskaeran jasotako ECTS kopurua lortu dituela frogatzen denean gauzatuko da. Eskaera hau, araudi honetako ANEXO II atalean dagoen Dok 2 dokumentua Zerbitzu Akademikoetan aurkeztuta egingo da, gehienez notak publikatu eta hurrengo egunean³

Bederatzigarrena.-Arautegi honetan xedatzen ez diren kasuetarako MGEPeKo Koordinatzaile Akademikoak izango du erabaki-eskumena, Graduako Titulu-koordinatzaileen taldearen iritzia jaso eta hauekin erabakiak adostu ondoren.

Arrasate, 2024ko uztailak 1.

² Eskaera 1,5 ECTS baino txikiagokoa izan daiteke, ikasmilako kredituak 60 ECTSra doitzeko aukera badu.

I. ERANSKINAⁱ

▪ UNIBERTSITATEKO KULTUR EKINTZAK

SOZIOKULTURA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	EGIAZTAGIRIA	CAMPUSA
Bertso Eskola	Bertsoaren mundua hobeto ulertu eta bertan integratzea du helburu norberak arlo honetan dituen dohainak landuz eta erakutsiaz. Euskal kulturgintza bultzatuko litzateke Eskolako zenbait ekitalditan parte hartuz eta baita San Pankrazio egunean saioa antolatuz. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, saio berezia, asteroko etengabeko lana	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Musika tailerra	Musika zaletasuna bultzatu nahian entsegu gune bat talde ezberdinen esku utziko da taldekideekin seihilabeteko plangintza finkatuz. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, saio berezia, asteroko etengabeko lana	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Dantza tailerra	Dantzarekiko zaletasuna bultzatu nahian (euskal dantza, salsa, merengea) entsegu gune bat eta irakasle bat eskuragarri izango dira seihilabeteko plangintza zehaztuz. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, saio berezia, asteroko etengabeko lana	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
BINeko Lokal soziala	Gazte topagunea den lokalaren kudeaketan datza; erreserbak, txapelketak, garbitasuna, eta abar planifikatuz	Mahai jokoan txapelketen antolaketa, bakarrizketak, txiste lehiaketak, argazki lehiaketak, sukaldetxoaren kudeaketa,...	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Master class	Ekintza batean oinarritzen den ikastaroa izango litzateke.	Enpresetara irteerak, bertso afariaren arian bertsoa landu,	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
BINeko Tertulia	Gai baten inguruan aditua den norbaitekin solasean aritu anfitrioiarena eginez	Gaiaren inguruko informazioa bilatu, aditua topatu eta kontaktua gauzatu, bilera prestatu eta gauzatu	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
BINeko Ekitaldi Akademikoa	BINeko ikasturteari hasiera emango dion ekitaldi akademiko formal eta unibertsitario da. MUko errektorearen izenean 200 gonbidatu inguru jasotzen dira bertan eta anfitrioi-lanak bete behar dira.	Ekitaldi formalak prestatu, gonbidatuentzako lunch-a prestatu. Ekitaldi kulturalak prestatu	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
San Juan Bosco jaia	San Juan Bosco jaia	San Juan Bosco egunerako ekintzak antolatu	1,5	astean ordu 1	Goierriko titulu koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Goierri

Kultur programa	Honen helburua da Goierriko Campuserako kultur programa bat diseinatu, aurreikusi eta gauzatzea.	Kultur programa bat disetu, aurreikusi eta gauzatu	1,5	astean ordu 1	Goierriko titulu koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Goierri
Zientziaren astean parte hartzea	Honen helburua da Zientziaren Astean egingo diren ekintzen antolaketan laguntzea	Praktikak antolatzeko aldizkako bilerak, Zientziaren Asteko erakustaldietan parte hartzea eta azken balorazioko bileran parte hartzea	1,5	astean ordu 1	Titulu koordinatzaileek bidalitako zerrenda	Arrasate eta Donostialdea
San Pankrazio egunean parte hartzea	Honen helburua da San Pankrazio egunerako antolatuko ekintzak antolatzen laguntzea	Ekintzak antolatzeko aldizkako bilerak eta ekintzetan parte hartzea	1,5	astean ordu 1	Titulu koordinatzaileek bidalitako zerrenda	Arrasate eta Donostialdea
FIRST LEGO League programan parte hartzea	Honen helburua da, gazteen artean zaletasun zientifikoa eta teknologikoa sustatzen dituen FIRST LEGO League programaren kudeaketa eta garapenean parte hartzea	Ad-hoc prestakuntza, talde antolatzailearekin 2 bilera eta ekintzan bertan parte hartzea bolondres gisa	1	20 ordu	Orientazio taldeak bidalitako zerrenda	Campus guztiak
NiZuGu Bizitza unibertsitarioa programako jardueretako bat planteatu, diseinatu eta garatu	Honen helburua da, NiZuGu Bizitza Unibertsitarioan eta NiZuGu orientazio hamabostaldiaren esparruan ikasleek jarduera desberdinak proposatzea, diseinatzea, kudeatzea eta abian jartzea	Jarduera diseinatzeko eta antolatzeko aldizkako bileretan parte hartzea, bai eta berau abian jartzea eta ebaluatzea	0,5-1	10-20 ordu/jarduerako	Programaren koordinatzaileak bidalitako zerrenda	Arrasate
Konferentzia zikoetan parte hartzea	Hone helburua da, ikasleriaren prestakuntza integrala sustatzea unibertsitatearen baitan antolatuko konferentzia ziklo ezberdinetan parte hartuz	Konferentzia zikloaren eremuan definitutako saioretara bertaratzea	0,5	10-12 ordu/zikloko	Zikloaren antolatzaileek bidalitako zerrenda asistentzian oinarrituta	Campus guztiak
Formazio ez-formalaren jarduerak garatzea	Honen helburua da, eskolaren eremutik kanpoko ikaskuntza sustatzea	Prestakuntza jarduerara bertaratzea edota berau garatzea (Batzorde akademikoaren aurretiko onespenearekin)	Kasuan kasukoa aztertuko da			Campus guztiak

▪ **IKASLEEN ORDEZKARITZAKOAK**

IKASLEEN ORDEZKARITZA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	EGIAZTAGIRIA	CAMPUSA
Euskara Batzordea	Euskara Batzordeak antolatzen dituen bileretan parte hartzea eta Batzorde honek sustatzen eta bultzatzen dituen ekintzak antolatu edota haueetan parte hartzea	Bilerak hartu eta	1,5	hileko bilera 1	Euskara Batzordeko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Ikasleen ordezkari eta ordezkariorde	Ordezkari edo ordezkariorde gisa ordezkari lanak egiteagatik eta Ikasle Kontseiluan parte hartzea	Ikasleen iritziak entzun, jaso eta, dagokionean, kudeaketa organoei helarazi	1,5	hilean bilera 1, eta ordezkariorde dagokion dedikazioa	Ikasle Kontseiluaren Idazkari bidalitako zerrenda	Campus guztiak
Kontseilu Errektorean ordezkari	Kontseilu Errektorean parte hartzeagatik	Parte hartze aktiboa	1	hilean bilera 1	Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak bidalitako zerrenda	Campus guztiak
BINeko Batzordeak	Biteri experience: etxearen egunerokotasunaren antolaketak	Parte hartze aktiboa	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
GEPeko ate irekietako jardunaldietan parte hartzea	Tituluko ikasleen ordezkari lanak egitea ate irekietako jardunaldietan (Tituluko ate irekiak)	Guraso bileran parte hartu, aurkeztu beharreko materiala prestatu eta Arrasate GEPen biziaren esperientzia kontatu	1,5	astean ordu 1	Dagokion titulu koordinatzaileak bidalitako zerrenda	Campus guztiak

▪ **ELKARTASUNEN ETA LANKIDETZAKO JARDUERAK**

ELKARTASUNEN EDOTA LANKIDETZA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	Egiaztagiria	CAMPUSA
Bikeroak	Hutsetik bizikleta bat erakitzeko du helburutzat. Ekologia, birziklapena, mugikortasun sostengarria bezalako balioak jorratzen dira. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, asteroko etengabeko lana	1,5	astean ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Ibaiondo	Adin txikikoen zentroan bizi diren gaztetxoekin futboleko aritzea. Bazterre soziala gaituztu eta kirol eta osasun hezitzailea bultzatzea bilatzen du. (plaza mugatuak)	Tertulia, gazte zentrorako hileroko irteerak	1,5	hilean 2x2 ordu	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Harrera gela	Herri Eskolako Harrera Gelan umezaintza laguntzea. Herri auzolanderaren ideia berreskuratzea eta bultzatu nahi du. (plaza mugatuak)	Ikastaroa, asteroko etengabeko lana	3	astero 2 ordu	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate

Aspace	Arrasateko Aspace-n bertako kideei euren beharretan laguntzea. Herri auzolandegia bultzatu eta baztertze soziala gainditzea bilatzen du. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, asteroko etengabeko lana	3	astero 2 ordu	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Haima	GKE Abay-rekin Etiopiarako proiektu bat garatzea. Garapenerako heziketa eta garapen sostengarria bultzatu nahi du. (plaza mugatuak)	Tertulia, ikastaroa, ekintza berezia, elkarbizitza, asteroko etengabeko lana	3	astero 2 ordu	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
BINeko Larrialdi taldea	Emergentzi uneak errezago gainditu ahal izateko prestakuntzarako sarrera du helburu, Eskolako emergentzi taldearentzako laguntza ezinbestekoa suposatuz.	Lehen sorospenen ikastaroa. Ebakuazio simulakroa.	3	asteen ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
BINeko Jangela taldea	BIN-eko jangela zerbitzua dinamizatzean datza beronen jarraipena eta proposamen berriak eginaz egoiliar talde osoaren onerako.	Sukaldari buruarekin bilerak. Inkestak. Afari berezien antolakuntza	3	asteen ordu 1	BINeko zuzendariak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate
Atzerriko ikasleei MGEPen kokatzen laguntzea	Mugikortasun-egonaldiak egiten dituen ikasleri atzerritarrari unibertsitatean eta ingurune sozialean kokatzen laguntzean datza.	Arrasatera etorritako ikasleri atzerritarrari egonaldiko lehen egunetan laguntzea. EPS-ak antolatutako jarduera ludiko eta kulturaletan parte-hartzea (bisitak, ibilaldiak...)	1,5	Egonaldiaren lehen hilabetean, 2 ordu asteen (lehen seihilekoan eta bigarrean). Gainontzeko hilabetetan, asteen ordu 1.	Nazioarteko Harremanetarako Koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Arrasate

▪ **KIROL JARDUERAK**

KIROL JARDUERAK	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	Egiatagaria	CAMPUSA
Ikastaroak	Kirolaren praktikarekin, osasunarekin, elikadura eta oro har gai hauekin lotutako formazioa	Tertulia, ikastaroa, asteroko etengabeko lana	1	Guztira 20 ordu	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
Txapelketak	GEP-eko barne txapelketetan parte hartzea	Parte hartzea	0,5	3 eta 8 egun artean	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
	MUko txapelketak	Parte hartzea, GEP ordezkatzeta,	0,5	Egun 1	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak

	Euskadiko unibertsitate kirol txapelketa	Parte hartzea, GEP ordezkatzea,	0,5	Egun 1	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
	Herri kirol txapelketan parte hartzea, kirolaren bidez euskal kultura garatzen laguntzeko	Parte hartzea, GEP ordezkatzea	0,5	Egun 1	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
	Espainiako unibertsitate kirol txapelketa	Parte hartzea, GEP ordezkatzea	1	2 edo 3 egun	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
Kirol Jarduerak garatzeko ikasle laguntzaile	Barne txapelketako arbitro-lanak egitea, ikasleen parte hartzea kontrolatu,..	Baloreen garapena	0,5 1	10-15 partidu 20-25 partidu	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
Amazon University eSports Ligan parte hartzea	Bideo jokoen lehiaketa nazionalen parte hartzea, non titulu nazionala lortzeko unibertsitate bakoitzeko jokalarari onenak taldeka aritzen diren. Europa mailako unibertsitatea onenek parte hartzen duten University eSports Masters lehiaketa handian parte hartzea	Parte hartzea, GEP ordezkatzea	0,5 1 2 1 3	SPLIT ERDIA (seihileko 1/2) 1 SPLIT (1 seihilekoa) 2 SPLIT (2 seihileko) FINAL PRESENTZIALERA IRITSI (nazionala) UNIBERTSITATEKO BANDERADUNA	Errektoreorde akademikoak egindako ziurtagiria, Banderadunak proposatutakoaren arabera	Campus guztiak

▪ **EKINTZAILETASUNA**


EKINTZAILETASUNA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	EGIAZTAGIRIA	CAMPUSA
Formazioa	Bootcamp ekintzailetasuna + ekintzailetasunaren eguna (1) (Ideaton edo antzekoa) + 2 hitzaldi/ekintzailetasunari buruzko ekitaldia ...)		0.5	Guztira 15 ordu: 7 ordu bootcamp online + Ekintzailetasunaren egunean (4 ordu)+ gutxienez hitzaldi 1 urtean (4)	MGEPEko Ekintzailetasuneko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
	Change Maker Lab		1,5	MUko Campusen artean txandaka egiten den aurrez-aurreko asteroko saioetan (asteko 4	MGEPEko Ekintzailetasuneko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak

				ordu) + eskolaz kanpoko lana (beste 4 bat ordu) + erebakitzeke dagoen egoitzaren batetan gutxienez 2 eguneko egonaldia (madril...)		
Lehiaketak	Lehiaketetan parte hartzea	Kalitatezko proiekturen batekin gutxienez lehiaketa batetan parte hartzea. (Technopreneurship, Enpresa Sortuz, Mondragon City Challenge...) Finalaren egunean pitchinga a egitea	0,5 -1	Lehiaketen oinarrien arabera, eskatutako dokumentazioa prestatzea; lehiaketa prestatzeko jardunaldietan parte hartzea (2 ordu), eta pitching-arekin finalean parte hartzea.	MGEPeke Ekintzailetasuneko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak
Engipreneurship experience	Engipreneurship experience: Ekintzailetasuna Taldearekin elkarlanean, ikasleriaren artean ekintzailetasunaren kultura zabaltzen laguntzea (jardunaldien antolaketa, ikasgeletan zabalkundea ematea...)	Partehartze aktiboa	1	Bataz beste, astean ordubete (urtean 50 bat ordu)	MGEPeke Ekintzailetasuneko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria	Campus guztiak

ⁱ Ekintza eta jarduera zerrenda hau eguneratu egingo da urtetik urtera.

II.ANEXO A

1.Dok ECTS-en behin behineko aitorten eskaera

 Mondragon Unibertsitatea Escuela Politécnica Superior	KREDITU AITORPENERAKO BEHIN-BEHINEKO ESKAERA
---	---

DATU PERTSONALAK:

Izen Abizenak: _____

IDALA: _____

TITULAZIOA:

- Mekanikako Ingeniaritza
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza
- Industria Elektronikako Ingeniaritza
- Informatikako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Biomedikoa
- Industria Prozesuetako Ekoteknologietako Ingeniaritza
- Energiaren Ingeniaritza
- Mekatronikako Ingeniaritza
- Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa

IKASGAIA:

Aitortu nahi den ikasgaia: _____

Ikasgaiaren kurtsoa: _____

Ikasgaiaren seihilekoa: _____

Ikasgaiak dituen kreditu kopurua: _____ ECTS

Data: _____

Sinadura:

*GOGORATU: Ikasurtearen amaieran ez badituzu kredituak metatu, eskaera honek balioa galduko duela.
Beraz, kreditu kopuru horiek egin gabe izango dituzula ondorio guztietarako: kurtsoz pasatzeko, TFGa aurkezteko...*

2.Dok ECTS-en behin betiko aitorten eskaera

KREDITU AITORPENERAKO BEHIN-BETIKO ESKAERA

DATU PERTSONALAK:

Izen Abizenak: _____

IDALA: _____

TITULAZIOA:

- Mekanikako Ingeniaritza
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza
- Industria Elektronikako Ingeniaritza
- Informatikako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Biomedikoa
- Industria Prozesuetako ~~Ekoteknologiako~~ Ingeniaritza
- Energiaren Ingeniaritza
- ~~Mekatronikako~~ Ingeniaritza
- Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa

IKASGAIA:

Aitortu nahi den ikasgaia: _____

Ikasgaiaren kurtsoa: _____

Ikasgaiaren seihilekoa: _____

Ikasgaiak dituen kreditu kopurua: _____ ECTS

Data: _____

Sinadura: _____